

Sanpedruak eta Sanjuanak

Testua: Iñaki Irigoien

Lekeition garrantzitsuak dira San Pedroak. Santu hau herriko arrantzaleen kofradiako babesle eta jagolea izan da.

Ospakizunak antzinatek agertzen dira dokumentuetan. Honela, 1508. urtean, haragi hornitzaileen betebeharren artean zegoen *“traer para el día de San Pedro para correr, dos novillos y dos bueyes”*. Urte gutxira, kofradiako gastuen artean, zezenen eta dantzarien erreferentziak agertzen hasten dira.

San Pedroetan, bezperatik hasita uztailaren 2ra arte (Andra Mariaren bisitazio eguna azken hau), kofradiaren nondik norakoak zuzendu beharko zituzten maiordomoak izendatzen ziren. Egun batzuk aurretik baina San Juan eguna ospatzen zen, Auriako (Audixo) oster eginez.

1595eko azaroaren 13an suteak herriko hiru etxetatik bi erre zituen, guztira laurhun etxe baino gehiago, tartean udaltxea, alondegia eta kartzela. Halere, honek ez zuen eragotzi, 1596an San Pedroak ospatzea, egin ziren gastuetan ikusi ahal denez (dantzarietzako freskagarriak,...).

Urtebete beranduago, 1597an, izurrite larri batek errematatu zituen herriaren ezbeharrak. Santa Maria elizaren fabrika liburuetan (kontu liburuak) ikus daiteke urte haretan elizako ortuaren errenta ez zela jaso, bertan, izurriteak jota hil ziren bostehun lagunetik gora lurperatu zirelako. Kopuru hau handiagoa da, kontutan hartzen badugu ortua ez zela ohiko tokia gopruak lurperatzeko.

Dantzaria:
Ignacio Murelaga, 1926.




Mende bateko liskarrak

Zoritzarreko gertaera haien ostean, XVII. mende hasieran, liskar larria sortu zen, Martin de Lariz parroikiko bikarioa eta Calahorrako gotzaina, eta arrantzaleen kofradiako maiordomoen artean. Calahorrako gotzaiak jai hura debekatu egin zuen. Orduan, Kofradiakoek, errekurtsioa jarri zuten Bizkaiko Epai Nagusiaren aurrean eta Valladolideko Chancilleriaren Lehendakari eta Entzuleen aurrean, beraien alde egongo zirelakoan. Chancilleria garai hartako azken justizi instantzia zen.

Parroikiko bikarioaren eta bere nagusien iritziz, liskarraren funtsa zen ospakizun zibil eta laikoetan eliz elementuak erabiltzen zirela. Kofradiak, aldiz, argudiatzen zuen erabilitako elementuak ez zeudela bedekinatuta. Eta antzina-antzinatik, bakean eta arazorik gabe burutzen zirela ospakizunak; ez zirela irreberenteak eta elizgizon batzuk ere parte hartzen zutela.

Dirutza handiak xahutu ziren auzian, hala diotzo gotzain jaunak arrantzaleen ordezkariari Kaltzadako Santo Domingon. Kofradiako ordezkariak kontatzen du gotzainarekin izandako elkarrizketan hark esan ziola uzteko auzi biziotsuak "y que se quitasen de hacer ritos en hacerse Papas y asimismo que estaban descomulgados todos los de ese pueblo" eta "que por eso se le había quemado toda la villa" urte batzuk aurretik.

Valladolideko Chancilleria-ko Artxiboan dagoen auzi honetan (1605-1607) eta XVII. mendeko beste hainbat dokumentutan oinarrituta, San Pedro eta San Juan jaiak zelan ospatzen ziren azaltzen saiatuko gara.



España. Ministerio de Educación, Cultura y Deporte. Archivo de la Real Chancillería de Valladolid. Sala de Vizcaya, Caja 2809, 2. 1606

Auriako jai, San Juan eta eguzki dantza


Ospakizunak San Juan egunean hasten ziren. Kofradianteak... "van juntamente con los cabildos eclesiástico y seglar de la dicha villa a un puesto que se llama Auria, junto al humilladero que está en la entrada de dicha villa, con ánimo de celebrar y festejar el día del señor San Juan y para tratar en el dicho puesto del modo y forma como, en el servicio de nuestro señor, se hayan de celebrar fiestas y regocijos en alabanza del señor San Pedro su patrón". Komitiba, prozesioan joaten zen arrosarioaren ondoren, arratsaldeko sei eta zazpiak bitartean, elizatik irten eta herriko kaletan zehar, Aurian (Audixo), intxaurrondoaren parean zegoen egurrezko gurutze bateraino.

Aurian dantza egiten zen. 1656. urteko notaritza-akta baten arabera: "vista la danza que según costumbre se compuso de hombres, se volvieron de la misma manera a la nasa y muelle del puerto". Ez ziren egiten gizonzkoen dantzak bakarrik, auresku edo gizon dantzak legez ezagutzen ditugunak. Andrazkoen dantzak ere egiten ziren.

1682ko beste agiri baten hala ikus daiteke. Azken hau da San Juan eguneko andrazkoen aureskuaz aurkitu dugun erreferentziarik zaharrena. XIX. mendearen erdialdean, andrazkoen dantzei buruzko datu gehiago aurkitu ditugu. 1856an, San Juan eta San Pedro egunetako goiz eta arratsalde bietako neskatxa dantzarietako freskagarriak ordaintzen dira "ohitura denez".

"Eguzki Jaia" ere deitzen zitzaion, udako solstizioko egun nagusiko dantza honi. Orduan, dantza hiru bider egiten zen: lehena, albakuan, goizeko meza amaitu ondoren, setazko mantoiak sorbalda gainean eta herriko gizon ondraduei dantzatzu: bigarrena, eguerdiko meza nagusia entzundakoan, jantzi dotoreekin eta krespoizko manto ederrak soinean; hirugarrena, arratsaldeko arrosarioa amaitu ondoren, eguerdiko jantziekin baina gaineko mantoiak aldatuta, katximir manto handiak erabiliz. San Juan egunarekin zuen lotura galdu egin zen baina.

Andrazkoen erritu garrantzitsu hau, bada, San Pedroekin eta kofradiarekin lotu eta erlazionatu daiteke oso antzinatik.



...y los mochachos yban cantando delante de la dicha arca y jente = **au dala sancti san pedro = san pedroco caxea gustia urez** (urrez) betea. Y otros decian "guztia paperez beta" = que en romance quiere dezir este es santo san pedro y su arca es llena de oro o papeles...



"Die Trachtenbuch" Christopher Weiditz, 1529. "Honela dantzatzen dute Bizkaian" dakar alemanez.



Basurtuko *Beti Jai Alai* taldeak aurkeztu zuen antzinako ohitura. 2009.

San Pedro eta Kaxarranka

San Pedro bezperan hasten ziren santuaren omenezko ekitaldiak.

Alonso López Córdido, Valladolideko Chancilleriako errezeptorea, arrantzaleen aldeko gutun exekutatuzailea (1607-06-30) ekartzera etorri zen eta emaniko autoan irakur daiteke, eguerdi ostean hasten zirela prestaketekin, dantzariak eta apostoluak ordezkatu behar zituen pertsonak aukeratuz. Kofradiako kideak ziren San Pedro, San Juan eta San Andres irudikatuko zituztenak. Uztailaren bira arte prozesioetan ibiltzen ziren, agintari eta auzokideei bisitak egiten eta kalez-kale eta eliza edo sakristia aldetik dantzan.

Lekuko batek adierazi zuen: *“andaban danzando unos marineros con sus espadas desnudas en las manos y cascabeles en las piernas y traían por retaguardia a tres hombres, de los cuales el que venía en medio traía: una capa de coro, una llave grande en la mano, cubierto el rostro con una máscara y en la cabeza una insignia papal a manera de mitra. Los dos de los laterales: unas casullas de damasco puestas como sacerdotes, en las manos unos cetros de palos, enmascarados y en las cabezas unas diademas”*.

Lopez Córdidoren autoa Juan Irigoyenek transkribatu zuen Kaxarrankari buruz idatzitako artikuluan baten (RIEV, 1927, XVIII. zkia.).

Dantzariak, marinela eurak, *“eran más de veinte estando con sus espadas desnudas, con que danzaban, en las manos”* lekuko batzuen esanetan.

1605. urtean, auziaren hasieran, alkateek (bi ziren orduan, bata bikarioaren anaia antza denez) dantzariei eta danbolina jotzen zutenei, dantzatzea debekatu zieten, San Pedro bezperan, arratsaldeko bostetatik aurrera: *“mandaban y mandaron a Juan de Licon, quien guía y es el primero de la dicha danza e a los demás danzantes que con él andan y a cada uno de ellos y tamborines no toquen, ni dancen”*. Dantzak eta mo-

zorroak, maskarekin zein maskara barik, ez ziren egin behar, ez oinez, ezta zaldiz, ez elizan ezta elizatik kanpo.

Dantzatzen zena, *Ezpata Dantza zen*, noski, buruzagi bat aurrean kokatuta. 1655ean dantzariei zuzendutako beste dekretu baten, aipatzen dira *“Martin de Ibieta y Juan de Goicoa danzantes primero y postrero”*. Ezpata dantzan ilara bakoitzeko azkenak duen garrantzia ezagututa, aurretik esandakoa indartu egiten da.

Jaietan, sarritan datzatzen zuten figuranteek. Izan ere, sakristian dantzatzen zeuden Salazar, eliz bisitatuzaileak, kapak eta maskarak kendu zienean. Lekuko batzuk adierazten dute bisitatuzaileak eskatu egin ziela joateko: **“con la dicha danza a casa de Zubieta y porque no lo quisieron hacer les ha mandado quitar las dichas figuras”**. Zubietan herriko jaun handikiena bizi zen, aldi berean prebostea zena, eta, antza denez, harekin auzi garrantzitsua zeukaten arrantzaleek. López Córdidok, berriz, lehen aipatutako gutun exekutatuzailean adierazten zuen, apostoluak irudikatzen zuten haiek, euren ikurrekin ibili ahal zirela jaietan, dantzariekin batera, *“sin que tengan obligación de acudir con tal danza e máscaras a parte alguna ni a casa particular”*.

Aurreko gertakizuna 1655. urteko akta baten dago jasota. Haretan, dantzariak izendatzen dira, *“los cuales suelen andar a pedir de casa en casa”* esanez. Eskean ibiltzeak auzokideen artean arazoak sortzen zituen, izendatutako dantzariek eskean ez ibiltzea agindu zen, salbuespen bakarra ondokoa izanik *“se les da licencia por la unión y la hermandad que tienen con la Anteiglesia de Mendexa, vayan a ella según es costumbre”*. Era berean azpimarratzen zaie *“que no acompañen a ningún particular de la dicha villa aunque sea cofrade sino solo a la Justicia y Regimiento della en comunidad”*.

Esan daiteke figurante eta dantzariak parte hartze handia zeukatela jaietan. Esaterako, 1606. urteko lekuko batek dio: *“andan en las dichas procesiones, ansi en las procesiones de la iglesia como en la que se hace otro día de señor San Pedro por las calles y el dicho día que se hace por las calles va el dicho hombre que representa a San Pedro con la dicha capa e insignia papal encima de la dicha arca”* eta *“a sus lados van también a pie los dichos dos hombres con las dichas capas”*. Eta lekukoak, guzti hau *“lo ha visto este testigo ser y pasar ansi de los dichos sesenta años a esta”*.

Kutxaren leku aldaketa zen jaiaren erritual garrantzitsuen: kargua uzten zuen maiordomoaren etxetik talaiako etxolara eroaten zen kaxa, kontu liburuak aztertzeko, eta gero kargua hartzen zuen maiordomoaren etxera eroaten zen. 1605ean bikarioaren kexa zera honetan oinarritzen zen: *“por los bailes deshonestos e disfraces escandalosos que en la iglesia, plaza y calles de la dicha villa hacen públicamente”*, eta herriarrak batzen zirelako, bai eliztarrak eta bai sekularrak, *“a manera de procesión suelen traer por las dichas calles una arca que no hay sino papeles viejos, causados de pleitos que han tenido y ordenanzas de los cofrades”*.

Cristobal de Amezqueta eskribauak egiten du garai hartako deskribapen zehatzena:

1608ko ekainaren 30ean izan zen. Egun haretan, bezperak egin ondoren: *“como a las tres horas después del mediodía, los cofrades mareantes desta dicha villa con sus danzantes y con ellos los dichos mayordomos nuevos y viejos, juntamente con la Justicia y oficiales Regimiento desta dicha villa y los mas hombres honrados della y otros que vinieron de fuera parte, con sus danzantes y tamborin y bandera de la dicha villa...”*. Maiordomo ohiaren etxera abiatu ziren, *“y estando la dicha caja en la calle, los mancebos le tomaron acuestas y sobre ella subió un hombre con su latría pontifical en la cabeza y una máscara de semblante de hombre anciano en su rostro y un manto a modo de los de la iglesia acuestas y una llave dorada en su mano y de esta manera, yéndole acompañando otros dos hombres a los dos lados de la dicha arca, que también representan a San Andrés y San Juan, con sus máscaras y capas como los de la iglesia, llevaron la dicha arca, con los dichos tamborines y danzantes y enmascarados y algunos hombres disfrazados, corriendo por las calles con cuartagos y tirando algunos arcabuces”*. Era honetara, kargua hartuko zuen maiordomoaren etxera abiatzen ziren, kutxa bertan uzteko.

Prozesioa garrantzi handikoa zen, lekuko batek esaten duenez: *“delante de la dicha arca danzando los dichos mancebos como si fueran y como suelen ir en una procesión solemne”*. Beste batzuk zehatzago: *“como si trajeran el Santo santorum con mucho aplauso”* edo *“como suelen en procesión delante el Santo Sacramento”*. Corpus eguneko prozesio ederraren parekoa omen zen.

San Pedro irudikazen zuen gizona nabarmentzen zen prozesioan eta bedeinkazioak botatzen zihola: *“muchas gentes de poco saber e ignorantes se arrodillan viéndolos pasar por las calles dándose golpes en los*

pechos”. Ekitaldiaren kontra zeuden beste lekuko batzuk zehazten zuten: *“golpes en los pechos como si fuese algún santo”*.

1607an liskar larriak gertatu ziren, lekukoek kontatzen dituztenak: eskumikuak, kartzelaratuak, kolpeak eta tratu txarrak... Martin de Lariz bikarioa, adibidez, elizatik konorte barik ateratu omen zuten. Urte haretan kaixa tokiz aldatzerakoan gertatukoak azpimarratu nahi ditugu: *“llevando la dicha arca en hombros mas de veinte marineros que iban con sus espadas y machetes y delante y detrás muchos*

enmascarados con chuzos y alabardas y otros géneros de armas, yendo todos como en guarda de la dicha arca e insignias”. Antza denez, bikarioaren anaia ere jipoitu egin zuten kalean ikusi zutenean. Jaia defendatzen zutenek ere jaso zituzten erasoak.

Kaixaren prozesioa honela osatzen zen:

-Dantzariak. Marinelen dantza dantzatzen, ezpata biluziak eskuetan, kaixaren aurretik dantzatzen.

-Kaixa eta hiru figuranteak. Kaixaren gainean San Pedro; San Juan eta San Andres alboetara. Jantziei buruzko aipamen batzuk: *“llevando en su persona sobre calzas y jubón una capa de coro”, “capas de iglesia”, “capa y dos casullas”, “insignias pontificales”, “capas pluviales”, “casullas coloradas”*. San Pedrok buruan: *“mitra pontifical”* edo *“mitra de papa”*. San Juan eta San Andresek: *“capas de media seda”*. Zenbait lekukok diote kapak erretiratutako zaharrak zirela, *“txamelotezkoak”*, beltzak bi eta zuria bestea. Zuria San Pedrok zeraman. Honen buruko mitra, oso altua dela aipatzen da. San Juan eta San Andres irudikatzen dituztenenak, apostoluen intsigniak, *“como medias lunas”*.

Atzetik jende asko joaten zen, besteak beste, maiordomo zaharrak eta berriak, Justizia eta Erregimentua, apaizak, kofradiakide asko, gizon mozorrotuak..., zalditxoak, arkabuzak tiroka... Benetan ere, seriotasun eta ponperiaz desfilatzen zuten, beste prozesio batzuetan legez, adibidez Sakramentu Santuarena.

Auzi luze honekin amaitzeko, 1611n, kofradiak, Gotzaindegiko hornitzaile eta bikario orokorrari jaiak egiteko lizentzia eskatu zion *“y este mande al cabildo y beneficiados y servidores de la iglesia de la dicha villa que asistan sin hacer ausencias”* bai bezperetara eta San Pedro jaunaren mezarara, baita Auriako San Juan eguneko osterara. Aurreko urtean alde bien artean lorturiko akordioaren arabera, horretarako apezpiakuen agindua bete beharko ziren: *“ningún cofrade, danzante ni otra persona alguna use en los dichos regocijos danzas y encamisadas de cosa ninguna que fuese dedicado al culto divino”*. Onartu zen eskaera eta erabakia bikarioari, abadeei, eta elizaren onuradunei jakinarazi zitzaien.

Ez dakigu zelan bete zuten kofradianteek hartutako konpromisoa. Izan ere, XVII. mendea ia amaitu arte, apostoluak irudikatzeko ohiturak jarraitu egin zuten. Beste alde batetik, zenbait apaizek uko egin zitoten, euren ustez laikoenak ziren ospakizunetan parte hartzeari.

Geroko datu batzuk aztertuta, ez dago argi kaixaren gainean zer zihotan, San Pedro irudikatzen zuen kofradiakide bat ala egurrezko irudi bat.



Basurtuko *Beti Jai Alai* taldeak aurkeztu zuen antzinako ohitura. 2009.



1655eko akta baten zera dakar: *“y habiendo así salido de la dicha iglesia con la imagen de señor San Pedro que le llevaban sobre una arca”*. Itxura denez, kaixaren gainean ez zihoan aurreko urteetan legez kofradiante bat mozorrotuta. Urte berean Mendiola doktoreari eskatu zitzaion diktamen baten arabera, era biek erabili ziren. Ordura arteko dokumentuak irakurri ondoren esan zuen kabildoak Auriako osterara agertzera behartua zegoela eta *“puede la dicha cofradía hacer su procesión al dicho día del señor San Pedro con su bulto de madera o con hombre revestido con casulla y mitra echando bendiciones”*. Bere iritziz alde biak elkar ulertu behar zuten eta, osterantzean, berari kontu eman.

1682ean amaituko zen figuranteen parte hartzea, kapa eta maskarekin. 1682. urtean, kabildoko maiordomo nagusiak protesta egin zuen Auriako osterara zela eta. Esaten zuen dantza baino ez zela egiten *“danza de hombres y mujeres”*, gai espiritualik ezer. Halaber, protestatzen zuen San Pedroren prozesioa era honetara egiten zelako: *“por las calles de la villa y al principio de ella van tres hombres inmediatos al cabildo y entre él y la imagen de San Pedro, los cuales van vestidos con capas pluviales y con unas máscaras o carátulas y en las cabezas llevan el de medio una tiara y en la mano una llave en representación de San Pedro y los de los lados además representando a San Andrés y San Juan”*. Azken aldian, hauxe izan omen zen parte hartzeko modua: santuaren irudia goian eta figuranteak behean. Apezpikuak, alegazioak ikusita, zera agindu zuen: *“no usen los seculares de capas pluviales, ni diademas, ni cetros yendo con carátulas”*. Hau izan zen figuranteek irten ziren azken urtea. Era berean, apaizek ez ziren joango gehiagotan Auriako osterara, joan beharra kendu zieten eta.

Lepe apezpikuaren, 1690eko bisitaldiko autoak, ez ditu figuranteak aipatzen, eta prozesioari buruz ari denean, andatan eramaten dutena hau dela esaten du: *“la arca del dinero que de su ejercicio aplican para dicha cofradía y la ponen en la iglesia la víspera del día glorioso San Pedro donde está hasta la tarde del día siguiente y de allí la vuelven en procesión a la casa del Mayordomo que nombran”*. Eta agintzen du *“que la dicha arca no se lleve en ninguna función de procesión ni se ponga en la iglesia de peana del santo”,* baita, *“que el cabildo eclesiástico de la villa no permita entre la dicha arca en la iglesia”*. Agindu honek, amaitzen du kabildo eklesiastikoaren partaidetzarekin lekualdatze prozesioan. Lepe apezpikuak ez ditu figuranteak aipatzen, irtetzen ez ziren seinale, bestela ez zen isilduko.

Lepe apezpikuak dio kaixa elizatik ateratzen zela prozesioa burutzen. Horrek 1655. urteko aktan agertutakoa baieztatzen du: *“y habiendo salido de la dicha iglesia”*. Antza denez, 1611ko itunaz geroztik, elizaren presio eta protesten ondorioz, kaixaren prozesioa aldatzen joan zen, gututz desagertu arte. Azkenik kaixaren

lekualdatze zibila alde batetik eta San Pedroren prozesioa bestetik egin ziren, hainbeste urtetan batera egin ondoren.

1740ko deskripzio anonimoak, Angel Rodriguez Herrerok 1970ean transkribitu zuena, 1690erako amaitutzat ematen du jaiaren aurreko urteetako moldea: *“...a la tarde, de tiempo inmemorial, hasta el año mil seiscientos noventa, salían de casa del mayordomo viejo más anciano, donde estaba la arca celebrada y llamada de San Pedro, la dicha danza de espadas, el arca en hombros de muchachos, y encima el bulto de San Pedro, que se trae ahora en procesión, después iban tres marineros con máscaras, capas pluviales de terciopelo colorado la una y las otras dos de buena tela doble, sus coronas a modo de mitra en las cabezas, el del medio llevaba una llave grande de plata sobredorada y los de los lados sus cetros grandes dorados...”*.

Argi ikusten da San Pedro bizidunak aspaldian utzi ziola prozesioan kaixa gainean joateari. Gainera, jaia dela eta iraganean egiten da berba. Figuranteek ez zuten parte hartzen kaixaren lekualdatzean. Ekitaldi zibila bihurtu zen. Auriako intxaurrondoetara egiten zen osterara ere iraganeko gauza legez aipatzen da. Hau ere prozesio bihurtu zen. XVII. mendearekin bi erritual eder hauek desagertu egin ziren lekeitiarren ohituretatik.


Beste datu folkloriko garrantzitsu batzuk aurkezten dizkigu 1740ko deskripzioak. Kaixaren lekualdatzea honela antolatzen zela: *“en obsequio de tan gran patrón, forman danza de espadas con tamborines y caja”*. Oraindik Ezpata dantzak bizirik irauten zuenaren seinale.

1740ko deskripzioak beste dantza bat ere aipatzen du *“encamisada”* legez ezagutzen dena 1611tik: *“todos los días hacia el anochecer se hacía hasta ahora muy pocos años la célebre danza inveterada llamada “bizarracerretia”; tenía diferentes mudanzas de volatines, pelea puestos unos sobre otros encima de brazos y hombros y se remataban andando todos sobre un pié, y del otro iba agarrando el que subsegüía; el que guiaba traía en la boca un tizoncillo ardiendo y con esto en la postura sobredicha iba quemando a cada uno las barbas, y para esto la porfía y resistencia andando sobre un pié y agarrados del otro era para la gente que miraba de gran risa y complacencia”*.

Lehen aipatutako ezpata dantza ederra, hogeitaz dantzari baino gehiagok egiten zutena, herriaren ohituretatik desagertu egin zen. Azken erreferentzia, Cavanilles bidaiaariak 1857an aurkezten dizkigun hitz apurrak dira. Hauxe dio: *“Antiguamente se usaba una danza guerrera con espadas. La ezpata danza que se bailaba de tres en tres ha caído en desuso”*. Seguruenik XVIII. mendearekin amaitu zen, oraindino mende erdialdean irauten zuen eta.

Ezpata dantzaren ohitura Lekeition galtzen joan zen, baina Euskal Herriko beste zenbait lekutan aldairan bat kontserbatu da. Hauei ezker Lekeition egiten zena susmatu genezake, eta ahal den neurrian, nola baiteko urreratze bat egin eta antzeko zerbait birsortzen ahalegindu.

1740tik aurrera, XVIII. eta XIX. mendeetan kaixaren lekualdatzeari buruzko daturik ez dugu aurkitu. Kofradiako 1797ko eta 1800eko kontuak bakarrik ikusi ditugu. 1797an ordainketak agertzen dira *“por la mudanza del Arca de la Cofradía llamada de San Pedro”, “al tambor y tamboritero”* eta *“por la corrida”*. Kaixa konpontzeagatik ere ordaindu egiten da. 1800ean hauezek gastuak gehitzen dira: *“por lo consumido en vino en los tres días de fiestas de San Pedro los bailarines”*. Ez dakigu, ordea, zer dantzatzen zuten.



1822ko Udaleko Jaunen gobernurako idatzitako urte guztiko jarraibidean aurkitzen dugu kaixa aldaketari dagokion deskribapen laburra baina interesgarria:

“El día de San Juan Bautista hay procesión a la tarde y asisten a ella todos los Señores de Ayuntamiento en forma; Día 30 de junio: Hay procesión a las tres de la tarde y juntándose todo el Ayuntamiento en la Sala Consistorial van a la Parroquia en comunidad llevando el síndico la bandera de la Villa y con ella se asiste a la procesión como el día de San Antolín. Acabada se vuelve a la Sala Consistorial y se deja la bandera. A esta procesión asiste el nuevo mayordomo. Acto continuo va todo el Ayuntamiento con el tamboril por delante a las puertas de la casa que abita el mayordomo saliente y presidencia la entrega de la arca de la Cofradía al nuevo mayordomo sobre la que va un mozo bailando. Hecha la entrega de la arca sube el Ayuntamiento a la habitación del nuevo mayordomo y este le da un refresco con coste según costumbre inmemorial”.

Kaixa aldaketaren modu zaharra beste era batera egokitzen da, gaur egun egiten den antzera. Hauxe da kaixa gainean dantza egitearen kontura aurkitu dugun lehen erreferentzia. Gaur egun Kaixarranka deitzen dena: *“gizon edo mutil bat dantzan eskuan bandera bat duela”.*

Baliteke, kaixaren lekualdatze modu berri hau XIX. mende hasierakoa edo aurrekoaren amaierakoa izatea. Honako ezer ez da 1740ko deskripzioan agertzen, ezta begiratu ditugun gastuetan. Bestalde, erabiltzen diren musika eta egitura batzuk ez dira hain zaharrak Euskal Herrian. Esaterako, fandangoa garai horretan zabaltzen da eta arin-arina, ez da zaharragoa. Bakarrik geratzen da San Pedroetako zortzikoa.

Bitxia da zortzikoaren soinuarekin gertatzen dena. Zenbait musikarik bildu zutenean, erritmo baten jarri zuten, 5/8 notazioan; Azkuek ere horretara jarri zuen. Baina dantzatzeko orduan, gaur egun, 3/4, 6/8 erritmoan jotzen da (Miguel Arrietak egokituta), dantzariak honela eskatzen du eta. Aspalditik, Lekeitioko txistulariak, soinua era bietara erabiltzen dute, 5/8 erritmoan kalerik-kale jotzeko eta 3/4, 6/8an kaixa gainean dantza egiteko. Erritmo hau erabiltzen da Durangaldeko eta Oñatiko zenbait dantzetan; baita Bizkaiko beste zenbait herritan, batez ere aureskua andrazkoen aurrean dantzatzen denean. Bizkaia ondoko Gipuzkoako herri batzuetan ere jaso zuen R. M. Azkuek erritmo hau. Soinua nondik hartu zen ez dakigu, aintzinako ezpata dantzatik edo bertoko edo Durangaldeko beste dantza mota bat edo batetik (trokiuak edo makil dantzak,...).

XIX. mendean, bigarrenez, Azkarraga Regilek aipatzen du dantza, Juan Ramon de Iturrizaren *“Historia de Vizcaya”* handituta berrargitzen duenean 1885ean. Idazle honen gehigarrian, San Pedroren irudia Arranegiko ateko arkuaren gainean aurkezten da (errekreazio bat). Jaiaren izena lehenengoz ikusten dugu idatzita *“conocida con el nombre de Cacharranka, que quiere decir baile sobre el arca”*, jartzen du. Kontatzen du jaia ekainaren 30ean egiten dela; goizean beste formalitate batzuk egin ondoren: *“por la tarde después de vísperas, sale desde las casas consistoriales procesionalmente el Ayuntamiento, vestidos todos los concejales de frac y entre ellos, con igual uniforme los dos mayordomos, el entrante y el saliente y se dirigen a la casa de éste en busca del arca de los fondos del Gremio, la cual es llevada en procesión, en hombros de cuatro robustos pescadores, dirigiéndose toda la comitiva hacia este arco-portal ante el cual, y en presencia de esta imagen de San Pedro, un bailarín danza sobre*

el arca, de cuyo baile procede indudablemente el nombre que se da a esta fiesta. Después continua la procesión con la misma solemnidad en dirección de la casa donde vive el mayordomo entrante y en ella se deposita el arca, sobre la cual no deja durante el trayecto de hacer piruetas y bailar el bailarín”.



Kaxarranka. A. Guerequiz-en argazkia. XIX. mende amaiera. Hauser y Meneten fototipia. Biblioteca Nacionala, Madril.



Andren Aurrekua



Andren aurrekua. Gerra aurreko argazkia. c. 1936.

“Zerutxu”, Markinako dantza taldeok berreskuratu

Andren aurrekua denbora tarte baten ez omen zen dantzatu baina gerra aurretik Batzokiko talde batek berreskuratu egin zuen.

36ko gerrarekin berriro ere eten zen eta, geroztik, 1974. urtean, Markinako “Zerutxu” dantza taldeko neskek berreskuratu eta dantzatu egin zuten lehenengoz San Antolinetan, Lekeitioko plazan. “Zerutxu” taldeko zuzendari ohia, Felipe Amutxastegi, eta ni neu, batu egin ginen eta... ikertzen hasi ginen.

San Pedroak gaur egun



Soinua

Dantza honen lehen aipamena José

Mari Egileorrek, Mundakako txistulariak, eman zi-

gun, baita paperean idatzita zituen soinuak. Ama lekeitiarra zuen

eta askotan etortzen zen Lekeitiara. Lekeitioko txistulari Santi Zapiraineri magnetofoiarekin grabatu zizkion soinuak eta gero berak pentagraman idatzi. Esan zigun Zapirainek, gerra aurreko soinua hura zela.

Hasieran J. M. Egileorrek emandako soinuekin ibili ginen, gero, R. M. Azkueren paperetan, dantzaren musikari buruz zerbait idatziko zuelakoan. Azkenik, Azkuek zuzendutako Euskalzale aldizkarian soinu bat aurkitu genuen, “Neska dantzea”. Oinean hauxe dakar: “Bi edo iru gizatan eretzten da au. Ondoen deritxagunez azaldu nai izan dogu. Donia-ne-goizean Lekeitiotan tanboliñak soinu auxe ioten dabela, emakumeak aurreku ta guztiko dantzea egiten dabe”. Beste soinu bi falta ziren baina guk bageneukan haien berri, berak argitaratutako “Cancionero Popular Vasco-canciones selectas”, bilduma berezian aurkituta. Azkenik, itsasoan lanean ibili ondoren lehorreratu zen Alberto Akarregi, gerra aurrean danbolintero izandakoa. Akarregik hiru soinuak pentagraman idatziak zituen eta hauek izan ziren dantzarako erabili zirenak. Azken biak Azkuek argitaratutakoekin bat zetozten, orduko txistulariei hartutakoak ziren seinale. Deigarria irizten zaigu R. M. Azkuek, lekeitiarra izanda, dantza honi buruz hain gutxi idaztea.

“La Gaceta del Norte”,
1974ko irailaren 4koa.





1975



Dantza

Lekeition, 1973an, orduko alkate Antonio Moralek lagunduta, bertoko emakume nagusiekin batu ginen eta harek, batzuk 1880ko hamarkadan jaioak, mende hasierako kontuak eman zizkiguten: gazte denboran hiru bider dantzatzun zutela, dantza bakoitzeko erabiltzen zituzten mantoï ezberdinak... Esan ziguten, gerra aurretik, Batzokiko etxea inauguratu zenean dantzatu zela eta orduko dantzari batzuk bizirik zeudela. Horrela, eurek lagunduta eta apurka-apurka, pausua ikasi eta biribildu genituen. Kontutan izan behar da hogei-ta hamar urtetik gora zeudela aurrekoa dantzatu barik. Aurrekoa dantzatu zuen emakumeak, Miren Edurne Erkiagak, bere izeba Luisa Atxabalengandik ikasi zuen. Hau ere aurreko mendean jaioa zen. Azkenik, "Zerutxu" taldeak dantza aurkeztu zuen 1974ko irailaren 8an Lekeition, San Antolinetan.

Harrezkero, urtero, hutsik egin barik, Lekeitioko emakumeak jarraitu egin dute dantzatzun.

Ez daukagu "Zerutxu" dantza taldeak dantzatu zueneko argazkirik. Bai, ordea, 1975ean Lekeitiarrek egin zutenekoak.

Gaur egun, San Pedro eguneko eguerdi aldean, kaxarranka kofradian egin ondoren eta plazan egin aurretik, Andreen Aurrekoa edo Eguzki Jaia dantzatzun dute "Etorkizuna" dantza taldekoek. Lehen ikusi dogun moduan, San Juan egunean Auriara egiteko ostera aspaldi galdu zen.

Herriko plazan emakumeek daukate protagonismo guztia. Oso dotore jantzita dantzatzun dute: mende hasierako jantzi ederrak soinean, mantoï dotoreak sorbaldan eta klabelin gorria paparrean. Dantza zahar honek, sokan eta gizonezkoen aurrean dantzatzeko, txistuz jotako doinu aproposak ditu. Publikoaren txaloak ez dira faltatzen hain da dantza ederra; Euskal Herriak duen aurrekurik ederrenetarikoa.



Lekeitioko Etorkizuna Dantza taldea, 2010.



Kilin-kala Sanpedropean.

San Pedro eguna: Kilin kala eta Kaxarranka

Gaur eguneko protokoloa nahiko antzekoa da funtsez, batez ere kaxa gaineko dantzari dagokiona. Aldaketak izan dira baina.

Gaur egun San Pedroak guztion jaiak dira, ez bakarrik marinelenak.

Eguna aspaldi aldatu zen, arrantzaleek eskatuta, San Pedro egunera, ekainaren 29ra hain zuzen. Kofradiak maiordomorik ez duenez baizik eta zenbait urterako izendatzen den presidentea, 2006ra arte presidentearen etxe aurrean dantzatzen izan da. Ordutik, presidentearen etxe aurrean barik, kofradia aurrean egiten da bigarren dantzaldia, San Pedropean egin ondoren. Beste alde batetik, dokumentuak ez dira kaixan gordetzen bulegoetan baino, beraz, ondo gordeta egoten da kaxa urtean behin ateratzeko.

San Pedro egunean, prozesioan joaten dira Udaletxeko eta Kofradiako ordezkariak euren penoiekin Musika Bandak lagunduta elizara arte. Meza nagusia amaituta, prozesioa irtetzen da San Pedroren irudiaren atzetik. San Pedrope parera helduta Kilin Kalakoa egiten da moilan. Zeremonia bitxia da: Santuaren irudia daroatenek santua uretara botatzekoa egiten dute, ur aldera eraginez santua. Kilin Kalakoa amaituta prozesioa kai ganetik igo eta Ezpeleta, Arranegi eta Uribarren kaleetatik elizara bueltatzen da.

Zenbait teoria dago zeremonia honen jatorriaren gainean. Fededunek, gaur egun, urak bedekatzeko egiten dela ulertzen badute ere, badirudi jatorrizko zeremonia paganoa izan zitekeela honelako hainbat kasutan gertatzen den legez. Arrantzan laguntzeko-edo zerikusia duen zeremoniatzat dago.

Inoiz santua uretara jausi ere egin da. F. Okamikak, adibidez, kontatzen du bere aita alkate zela, 1944an, irudiari grabitateak irabazi eta moilaren kontra jausi zela. Atunetako kanpaina uda hartan oso ugaria izanenez, batek baino gehiagok esan zuen santuaren jausiagatik izan zela.

Kilin Kalakoa eta prozesioa amaituta, denbora gutxira, San Pedropean, Kaixarranka hasten da.

Kutxa gainean dantzari bat aritzen da, orain berrehun urte inguru legez. San Pedroren ezaugarriak dituen banderaxo bat darama esku baten eta bestean buruko kapela dotorea; alkondara eta praka zuriak, gainetik frak elegante bat, XIX. mendean herriko agintariak kaxa lekuz aldatzerakoan joaten ziren erara; abarketak kenduta galtzerdi zuriak oinetan. Hiru tokitan dantzatzen du kaxarranka: kofradi zaharreko arkuko San Pedroren irudi aurrean, kofradiako egoitzan eta plazan, udaletxeari begira.

Kaixa, mahoiz jantzitako zortzi gizonen eusten dute eta beste zortzi gizon alboetara joaten dira, lau eta lau. Antzina marinelak ziren eta Kofradiak antolatzen zuen jai. Gaur egun Udalak antolatzen du eta kaxa eusten eta, Isuntzako arraunlariak eta dantzariaren lagunak joaten dira. Txalo eta irrintziak ez dira faltatzen eta emozioak pilpilean nabaritzen dira. Egun handia da Lekeitiarrentzako.



Dantzaria: Eusebio Akordarrementeria, 1929.

XX. MENDEKO DANTZARIAK

Facundo Etxeberria Idoiaga

Teodoro Urkiaga

Eusebio M^a Azkarraga

Zoilo Atxabal

Ignacio Murelaga

Pedro Erkiaga

Pedro Urkidi

Eusebio Akordarrementeria


Pedro Murelaga Etxeberria

Vicente Bakeriza Azkarraga

Jose M^a Bakeriza Azkarraga

Juan Manu Eforza

Pedro Murelaga Aretxaga



Pedro Murelaga Aretxaga, 1998 aldean. Arg.: Kiñuka



Asier Uskola Ibarra, 2012. Argazkia: Kiñuka

34 urte mando egin
ebazan gure Pedrok kaixa
ganian.



"Kareletik" aldizkarirako egina. Argazkia: Igotz Ziarreta, 2012





Lekeitioko kaxarranka "Un, dos, tres..." TVEko programan. 1982.



"Amalur" pelikulako fotograma. Fernando Larruquert eta Nestor Basterretxea. 1968.



Teodoro Urkiaga Iturraspe, 1903. Bilbo.



Eresoinka taldea Parisen. 1937.



Kukai dantza taldea Lekeitioko Kale Antzeki Jaialdian, 2014.



2016ko Dantzari eguna. 3.500 dantzari Lekeition!!



"Kaxarranka" Carlos Solano.



"Kaxarranka" Ramiro Arrue, 1935.



"LATARRANKIA". Mharr, 10



IÑAKI IRIGOIEN ETXEARRIA

Erdi lekeitiarra erdi deustuarra dugu Iñaki Irigoien Etxebarria, 1935ean Bilboko Abandon jaiotakoa. Gazte-gaztetatik maitemindu zen Iñaki euskal dantza eta folkloreakin. 1952an Dindirri dantza talde mitikoan hasi eta, gerora, dantzarien irakasle eta dantza irakasleen maisu izan da.

Dantzarekiko maitasunak bultzatu zuen artxiboetara ikerketa lanak egitera. Honen ondorioz, dexente ikasi du euskal dantza eta folklorea; argira ere ekarri ditu galdutako hainbat dantza...

Euskal Dantzarien Biltzarraren sorreran ere ibili zen gogor lanean (Baiona 1966) eta baita lehen Dantzari Egunen antolaketetan. Aurten ere, Lekeition izanda, ez du hutsik egin. Elkartearen presidente ere izan zen eta bere agintzaldia oso oparoa izan zen.

Bizkaiko Dantzarien Biltzarraren sorreran ere egon zen Iñaki lanean (1983).

2013ko apirilaren 13an omenaldi bero jaso zuen Bizkaiko Dantzarien Biltzarra, Bilboko Udala, Bizkaiko Batzar Nagusiak eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik, 50 urteko lana eskertzeko. Urte haretan, Lekeitioko Udalak ere San Antolinetako txupinazoa botatzea eskatu zion, gure herriko jai eta ohiturak sakon aztertzeagatik esker ona adierazteko.